

IKERLARIEN AURREIKUSPENAK

- a. Litekeena da etorkizunean haurrak genetikoki moldatuak izatea.
- b. Baliteke bizitzeko bizi-baldintzak askoz okerragoak izatea.
- c. Baliteke espazioa konkistatzea, eta hango bizi-baldintzek gizakiongan mutazioak eragitea.
- d. Bizimodu aldaketak gizakion fisikoan eragina izan lezake.

1. zatia

Gizakiaren eboluzioa ingurumenaren aldaketarekin estu lotuta dago, eta, ingurumena aldatuz, gizakiok gure eboluzioa baldintzatzen ari gara. Hori dela eta, planetak irauten badu, gerta liteke lurra bizitzeko ezegokia bihurtzea; ondorioz, goseteak, izurriteak eta gerrak izango dira, eta populazioak behera egingo luke. Bizirauten dutenek bizi-baldintza eskasak izan litzakete: ur falta, mutazioak...